


# Historia prime time-an kontsumitzen da: historiaren gorakada kultur industrietan

**03 - 04 UZTAILA**

NUPeko Arrosadiko campusa [ 018 gela -aulario]

- Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak
- Castellano
- Kredituak: 0,5
- 20 plazas
- 15
- 10 ordu
- Bukatuta, Concluido
- 2023ko uztailaaren 29a arte

Historia gero eta gehiago gaur egungo eztabaida publikoaren parte da. Telebista-programetatik hasi eta bideojokoetan edo sare sozialetan buka, gertaera historikoak, horien ondorioak, haiei buruzko memoria eta gure gizarteetan dituzten ondorioak etengabe ageri dira kultura-industrietan, eta haien bitartez gure eguneroko bizitzan. Historia publikoago bat dibulgatzeko eta hedatzeko panorama honetan, ikastaro honen

bidez ikasleei hedapen hori egiteko euskarri eta bideak hurbilduko zaizkie, haiek erabiltzen dituzten eragile nagusietako batzuen eskutik (historiari buruzko telebista-programen ekoizle eta aurkezleak, youtube, twitter edo halako plataformen bidez historia dibulgatzen duten pertsonak, bideojokoen diseinatzaileak, historia dibulgatzeko aldizkarietako zuzendariak eta editoreak...).

Ikastaro honetan, ikasleek, alde batetik, historia dibulgatzeko eta hedatzeko tipologia desberdinak behatuko dituzte, horretan dihardutens eragile nagusietako batzuen praktika profesionalaren bidez. Eta, bestetik, dibulgazio-tresnak garatuko dituzte, bizipenez, eragile horiekin batera, haiek menderatzen eta ezagutzen dituzten euskarrietan.

Hala, historian interesa duten ikasleak sare sozialetara, kultura-industriara eta historiaren dibulgazioarekin lotutako sektoreetara hurbiltzea du helburu ikastaro honek, egungo ikuspegi praktiko eta erreala erabiliz horretarako.

## NORENTZAT

Historiako Graduko ikasleentzat. Historian interesa duten ikasleentzat. Historiako, Ondareko, Arkeologiako eta Giza Zientzietako gradudunentzat, oro har.

## HELBURUAK

Historiaren dibulgazioarekin lotutako sektoreak ezagutzea, hala nola komunikabideak, sare sozialak eta kultura-industriak. Historia eta ondarea dibulgatzeko modalitateak ebaluatzea. Modu autonomoan garatzea aztertutako kultura-sektore bakoitzean parte hartzeko ereduak.

## IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Carlos Ciriza Mendivil, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea.

Miguel Fernández Carcar, NUPeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Saileko irakaslea.

## ASTELEHENA 03 UZTAILA

9:30 - 11:00  Hitzaldia

**Historiari buruzko bideojokoen garapena**

Xavi Rubio Campillo, Ramon i Cajal programako ikertzailea Bartzelonako Unibertsitatean

11:00 - 11:30  Atsedenaldia

11:30 -13:30  Tailerra

Modera: Iñigo Mugueta Moreno, Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Twitterreko hariak: historia sare sozialetan dibulgatzeko tailerra**

Javier Traité Clavería, liburu-saltzaile ohia, historialaria eta gai orotako idazlea

13:30-15:30  Atsedenaldia

15:30 - 17:00  Tailerra

Modera: Carlos Ciriza Mendívil

**Historia Youtuben: historiaren dibulgazioa ikus-entzunezko formatuan**

Mikel Herrán Subiñas, arkeologoa, doktoregaia Leicesterreko Unibertsitatean

17:00 - 18:30  Mahai-ingurua

**Dibulgazio historikoaren egoera gaur egun. Irteera profesionala izan daiteke?**

Javier Traité Clavería, idazle eta dibulgatzailea

Mikel Herrán Subiñas, Leicesterreko Unibertsitatea

Eva Tobalina Oraá, Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea

Laia San José Beltrán, idazle eta dibulgatzailea

## ASTEARTEA 04 UZTAILA

10:00 - 11:30  Tailerra

Modera: Miguel Fernández Carcar

**“El Condensador de Fluzo”: Historiaren kontsumoa prime time-an**

Laia San José Beltrán, idazle eta dibulgatzailea

11:30 - 12:00  Atsedenaldia

12:00 - 13:30  Hitzaldia

**Desperta Ferro: Historiaren dibulgazioa argitaletxeen industrian**

Alberto Pérez, Desperta Ferro Ediciones argitaletxeko bazkide sortzaile eta editorea

## ANTOLATZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**LAGUNTZAILEA**

GTL History proiektua - Kultura Zientifikoaren Unitatea

© Universidad Pública de Navarra